

Udazkena

Zarauzko Eraztun Berde Urdineko **Iñurritza-Talaimendi bidean**
Otoño en la ruta Iñurritza-Talaimendi del Anillo Verde Azul de Zarautz

azaroak

12

noviembre



ARGAZKI RALLYA MUGIKORRAREKIN

Rally fotográfico con el móvil

haur eta helduentzat
para todas las edades



9:30-14:00



Iñurritzako gasolindegia-
Frente a la gasolinera de Iñurritza

IZEN-EMATEA ETA OINARRIAK: zarautz@eraztunberdeurdina.eus

INSCRIPCIÓN Y BASES: 943005159

Udazkena

Zarauzko Eratzun Berde Urdineko Iñurritza-Talaimendi bidean

ARGAZKI RALLYA MUGIKORRAREKIN



oinarriak



DATA: 2023ko azaroaren 12a, igandea.

ORDUTEGIA: 9:30etik 14:00etara

ABIAPUNTUA: Iñurritzako gasolindegia parean.

IBILBIDEA: Zarauzko Eratzun Berde Urdinaren Iñurritza-Talaimendi bidea.

PARTE-HARTZAILEAK: natura eta argazkilaritza maite duen edonork parte har dezake.

KATEGORIAK: mugikorraren bidez egindako argazki rallya gaztetxoei zein helduei zuzenduta dago. Bi modalitate izango dira: haur eta gazteak (15 urte artekoak), eta helduak (16 urtetik gorakoak).

IZEN-EMATEA: Rallyaren aurretik: e-posta bidez (zarautz@eraztunberdeurdina.eus) edo telefonoz (943005159). Izen-ematea doakoa izango da. **Rallyaren egunean:** Iñurritzako gasolindegia parean, goizeko 9:30etik 10:30era. Izena ematerakoan parte-hartzaileak datu hauek adieraziko ditu: izen-abizenak, adina, herria, telefono zenbakia eta e-posta.

MODALITATEA: mugikorreko argazki kamera.

GAIK: lehiaketaren egun berean emango dira ezagutzera eta rallyaren hasieran Zarauzko Eratzun Berde Urdinaren mapa ere banatuko da Iñurritza-Talaimendi ibilbide zirkularra ezagutzeko.

ARGAZKIAK AUKERATU ETA BIDALI: parte-hartzaile bakoitzak gai bakoitzeko argazki bana bidali beharko du (kontroleko argazkia barne), e-posta bidez zarautz@eraztunberdeurdina.eus helbidera, argazki rallyak iraun bitartean (hau da, eguerdiko 14:00k arte) ateratako argazkiak bidaliko dira eta argazkien aukeraketa/ bidalketa azaroaren 12ko arratsaldeko 20:00k arte egin ahal izango da. Parte hartzaile bakoitzak bere parte-hartze zenbakia adieraziko du argazkien bidalketa egiten duenean. Argazkiak editatu daitezke. Bidalitako argazkien artean "Udazkena Eratzun Berde Urdinaren Iñurritza-Talaimendi bidean" erakusketaren parte izateko aukeratzeko duen argazkia zein den adierazi beharko du parte-hartzaileak. Argazki hori ahalik eta bereizmen handienarekin bidaliko da. Parte-hartzaileek Antolakuntzatik mezu bat jasoko dute argazkiak jaso direla baieztatzeko.

EPAIMAHAIA: Zarauzko Ingurumen eta Partaidetza arloko kideek eta natur argazkilariek osatuko dute epaimahaia.

EPAIA ETA SARI BANAKETA: epaimahaiak hartutako erabakia ezingo da aldatu. Saria abenduaren 15ean, ostirala, emango da arratsaldeko 18:30ean, Etxezabala aretoan (Kale Nagusiko 29 zenbakian).

Helduen kategoria:

Bilduma onenaren saria: 180 euro.

Argazki originalenaren saria: 80 euro.

Gazteen kategoria:

Bilduma onenaren saria: 100 euro + diploma

Argazki originalenaren saria: 50 euro + diploma

OHARRAK:

- Parte-hartzea doakoa izango da
- Rallya natur inguru batean egingo da eta Antolakuntzak ez da hamaiketakorik emango. Beraz, norberak bere hamaiketakoa eta ura eramatea gomendatzen da.
- Inork ezingo du sari bat baino gehiago eskuratu.
- Natur gune hauetan ez dago zakarrontzirik, beraz, norberak bere zaborrak eraman behar ditu eta inguruak txukun mantendu behar dira, zaborrak lurrera bota gabe.
- Argazkiak lehiaketaren egunean eta ordutegian egindakoak izan beharko dira.
- Saritutako argazkiak erakusketan eta Eratzun Berde Urdinaren web-gunean, aldizkarian eta sare sozialetan erakutsi ahal izango dira; egilearen izen-abizenak adieraziko dira beti.
- Antolakuntzak ez du bere gain hartuko jarduera egin bitartean pertsonengan, argazki ekipoetan edota edozein ondasunetan sortzen diren kalteen erantzukizunik.
- Rally honetan parte hartzeak oinarri guztiak onartzea dakar.
- Antolakuntzak ebatziko du oinarrietan adierazi gabeko edozein gertakari.
- Oinarrien interpretazioan arazo edo ezustekoren bat gertatzen bada, Antolakuntzaren irizpidearen arabera konponduko da.

Informazio gehiagorako: Tel.: 943 00 51 59 / zarautz@eraztunberdeurdina.eus

otoño

En la ruta Iñurritza-Talaimendidel Anillo Verde Azul de Zarautz

RALLY FOTOGRAFICO CON EL MÓVIL



bases



FECHA: domingo, 12 de noviembre de 2023.

HORARIO: 9:30-14:00

PUNTO DE ENCUENTRO: frente a la gasolinera de Iñurritza.

RECORRIDO: ruta Iñurritza-Talaimendi del Anillo Verde Azul de Zarautz.

PARTICIPANTES: dirigido a todas las personas amantes de la fotografía y la naturaleza.

CATEGORIAS: el rally fotográfico con el móvil estará dirigido a personas jóvenes y adultas. Habrá dos modalidades: jóvenes (hasta 15 años) y adultos (a partir de 16 años).

INSCRIPCIÓN: Antes del rally: a través del correo electrónico (zarautz@eraztunberdeurdina.eus) o el teléfono (943005159). El día del rally: frente a la gasolinera de Iñurritza, de 9:30 a 10:30. *La inscripción será gratuita. A la hora de inscribirse, cada participante deberá detallar los siguientes datos: nombre y apellidos, edad, población, número de teléfono y correo electrónico.

MODALIDAD: cámara fotográfica del móvil.

TEMAS: se darán a conocer el mismo día del rally, junto con el mapa del Anillo Verde Azul de Zarautz, donde se dará a conocer el recorrido circular Iñurritza-Talaimendi.

SELECCIÓN Y ENVÍO DE LAS FOTOGRAFÍAS: cada participante deberá enviar una única foto por cada tema indicando su número de participante (incluyendo la foto de control) por e-mail. Las fotos que se envíen serán tomadas mientras dure el rally fotográfico con el móvil, es decir, hasta las 14:00 horas del mismo día. La selección y el envío de las fotos se realizará hasta las 20:00h del mismo día del rally. Las fotografías se podrán editar. Cada participante deberá indicar cuál de esas fotografías enviadas formará parte en la exposición "Otoño en la ruta Iñurritza-Talaimendi del Anillo Verde Azul" y se enviará la fotografía a gran resolución. Cada participante recibirá un mensaje por parte de la organización para confirmar la recepción de las fotografías.

JURADO: el jurado estará formado por miembros del Área de Medio Ambiente y Participación del Ayuntamiento Zarautz, así como fotógrafos y fotógrafas de la naturaleza.

FALLO Y ENTREGA DE PREMIOS: el fallo será inapelable. La entrega de premios se realizará el viernes 15 de diciembre a las 18:30 de la tarde, en la sala Etxezabala (número 29 de Kale Nagusia).

Categoría adultos

Premio mejor colección: 180 euros.

Premio foto más original: 80 euros.

Categoría juvenil

Premio mejor colección: 100 euros + diploma

Premio foto más original: 50 euros + diploma

NOTAS:

- La participación es gratuita.
- El rally fotográfico con el móvil se desarrollará en un entorno natural y la organización no dará almuerzo. Por lo tanto, se recomienda que cada participante lleve su propio almuerzo y agua.
- Los y las participantes no podrán obtener más de un premio.
- En estos espacios naturales no hay papeleras. Cada participante se responsabilizará de sus restos y mantendrá limpio el entorno sin tirar las basuras al suelo.
- Las fotografías deberán estar realizadas, el mismo día del concurso, y dentro del horario establecido.
- Las fotografías ganadoras se podrán exponer en la exposición fotográfica, así como en la web, el boletín y las redes sociales del Anillo Verde Azul, siempre citando el nombre y el apellido de la autora o el autor.
- La organización no se hace responsable de daños en los bienes o personas que pudieran producirse en el transcurso de la actividad.
- El hecho de participar en el concurso fotográfico supone la total aceptación de las bases. Cualquier incidencia no reflejada en las mismas será resuelta por la organización.
- Cualquier problema o imprevisto que pudiera surgir de la interpretación de estas bases, será resuelto siguiendo el criterio de la Organización.

Para más información: Tel.: 943 00 51 59 / zarautz@eraztunberdeurdina.eus